

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2014ko 2. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2014ko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %0,9 hazi zen urte arteko tasan, urte hasierako emaitza puntu erdi batean hobetuz. Beraz, aurreko hiruhilekoan lortu ziren balio positiboak sendotuta geratu dira. Emaitza hori Espainiako eta Europar Batasuneko ekonomiek (%1,2) eta Euroguneak (%0,7) izan duten erritmoen arteko puntu batean dago. Hala eta guztiz ere, EAEko eta Espainiako ekonomiek gero eta hazkunde tasa biziagoak lortu zituzten bitartean, Europako BPGaren bilakaera ez zen aurreko hiruhilekokoa bezain ona izan. Beste aldetik, EAEko hiruhileko arteko tasa %0,4an kokatu zen, aurreko bi datuena baino hamarren bat gorago, egonkortasun garrantzitsua erakutsiz.

EAEko barne produktu gordinaren bizkortzea barne eskariaren bultzada handiagoan bakarrik oinarritu zen, kanpo saldoaren portaera neutroagoa izan zen bitartean. Izan ere, barne eskaria %1,0 hazi zen bigarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino ia puntu oso bat gehiago, aurreko emaitza positiboa finkatuz. Bultzada hori barne eskariaren bi osagai nagusietatik iritsi zen. Alde batetik, azken kontsumoan eginiko gastuak hazkunde erritmoa bizkortu zuen, aurreko %0,3tik oraingo %1,3ra. Kapital eraketa gordinak, berriz, jaitsiera leundu zuen eta egonkortasunera hurbildu zen (%-0,1). Inbertsioaren barneko mugimenduak norabide beretik joan ziren. Izan ere, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak %1,4ra areagotu zuen bere susperraldia eta inbertsioaren gainontzekoak zortzi hamarrenetan gutxitu zuen bere jaitsiera, %-0,9an kokatu arte.

Azken kontsumoak izan zuen gehikuntzaren arrazoia familien kontsumoaren goranzko bilakaeran datza, urte arteko tasan %1,4 bizkortu zelako. Horrelako zenbaki alturik ez zen 2010. urtetik jasotzen. Enpleguaren hazkundera oso mugatua izan zen arren eta soldaten errentak ia ezer goratu ez diren arren, konfiantza berreskuratu izanak eta kontsumoa murrizten igaro den denbora luzeak familien kontsumoa bultzatu zuten. Dena dela, aldagai hori errenta eskuragarriaren bilakaerara egokitu beharko da, familien zorra ez handitzeko eta kanpo saldoa ez narriatzeko.

Europar gertatu zen bezala, bigarren hiruhilekoan kanpo saldoak ez zion inolako hamarrenik ekarri EAEko barne produktu gordinari eta hamarren bat kendu zion. Horrek aldaketa garrantzitsua ekarri dio oraingo atzeralditik irteteko ereduari, ordura arte kanpoko saldoaren ekarpenean oinarrituta zegoelako. Kanpo eskariaren zeinu aldaketa hori, neurri batean, azaltzen duen elementu bat europar diruak bigarren hiruhilekoan izan zuen sendotasuna da, aurreko urtean baino %5 garestiago dagoelako. Zorionez, prozesu hori irauli egin da eta hirugarren hiruhilekoan europar dibisaren balioa apaldu da, esportazioei lagunduz.

Balio erantsia %0,8 hazi zen 2014ko bigarren hiruhilekoan, aurrekoan baino lau hamarren gehiago delarik. Hazkunde erritmoan hautematen den sektoreen arteko oreka adierazi behar da, EAEko ekonomiaren bi arlo nagusiek ia bizitasun berdinarekin parte hartzen dutelako. Izan ere, industriak bi hamarrenetan hobetu zuen bere bultzada eta %0,7an kokatu zuen urte arteko tasa, neurri handi batean manufakturen datu onari esker. Zerbitzuek, berriz, %0,9ko gehikuntza lortu zuten. Une hauetan, zerbitzuen eremua osatzen duten hiru jarduera taldeek aldakuntza tasa positiboak erakusten dituzte, merkataritza, ostalaritza eta garraioak (%0,4) aurreko jaitsierak gainditu dituelako. Beste hiruhileko batez, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldeak eskuratu zuen gorakada handiena (%1,9), lehen hiruhilekoko datua berdinduz. Gainontzeko zerbitzuek zertxobait egin zuten hoberantz eta %0,6 hazi ziren. Azkenik, eraikuntzak aurreko emaitzari eutsi zion (%-1,4), beraz antzeko zenbakiak izan ditu azken hiru hiruhilekoetan, iaz hasitako susperraldia bertan behera utziz.

EAEko BPGak ezagutu duen bultzadak 2008tik gertatu den lehen enplegu garbiaren sorrera ekarri du berarekin. Hazkunde tasa %0,1 baino ez zen izan, baina ia sei urte iraun duen etengabeko jaitsierari amaiera emateko balio izan du. Sortutako enplegu ia guztia zerbitzuetan lortu da eta beraren tasa %0,9ra igo da, hots, 5.500 lanpostu inguru sortu ditu azken urtean. Aitzitik, hala industriak (%-1,8) nola eraikuntzak (%-2,7) beren enplegua murrizten jarraitu zuten, nahiz eta jaitsiera erritmoa berriro leundu zuten. Beste aldetik, langabezia tasa %15,0ra murriztu zen aurtengo bigarren hiruhilekoan.

Prezioei dagokionez, BPGaren deflatorea oraindik oso aldakuntza tasa apaletan dago eta %0,2ko igoera jaso zuen. Kontsumoaren deflatorearen gorakada inbertsioaren deflatoreak konpentsatu zuen. Kontsumoko prezioek urte arteko jaitsierak jaso zituzten uztailean eta abuztuan, hurrenez hurren %-0,1 eta %-0,3 izan zirelarik, behin botiken koordainketaren goranzko eragina desagertu ondoren.


Datozen hiruhilekoei begira, Ogasun eta Finantza Saileko aurreikuspena ia ez da aldatu aurreko zenbatespenarekiko, eta EAEko BPGa aurtan %1,0 eta datorren urtean %1,7 haziko dela aurreikusten da oraindik. Hala ere, hazkunde horren osieran aldatetak gertatu dira, zeren eta oraingoan barne eskariak protagonismo handiagoa bereganatzen baitu jardueraren bultzagile gisa, eta kanpo eskariak, ordea, ekarpen txikiagoa egingo dio garapenari. Enpleguari dagokionez, aurtan lanpostuen kopurua egonkortuko dela (%0,0) aurreikusten da, baina 2015ean %0,7aren inguruko gehikuntza lortuko da. Eszenategi horretan dagoen zalantza nagusietako bat Europak bigarren hiruhilekoan izan zuen datu ahulak aurtengo beste emaitzetan izango duen eragina da. Europa ez bada aurreikusitako erritmoan hazten, EAEko esportazioak orain espero dena baino gutxiago hazteko arriskua dago.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomiaren ezaugarri nagusiak ahultasuna eta dibertsitatea ekonomien hazkunde erritmoetan dira. Horrek adierazten du ekonomia jarduerak, oro har, oraindik ez duela gaintu 2008. urtetik pairatzen duen atzeraldi sakona. Izan ere, ekonomia aurreratuen artean, AEBak sendo hazi ziren, Europar Batasuna aurrekoan baino gutxiago hazi zen eta Japoniak ozta-ozta lortu zuen hazkunde tasa positibo bat. Garatzen ari diren herrialdeen artean ere ezberdintasunak begi bistakoak izan ziren. Txina eta India indartsu hazi ziren, baina Indonesiak erritmoa galdu zuen eta Brasilek behera egin zuen.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Txinako barne produktu gordina %7,5 hazi zen aurtengo bigarren hiruhilekoan. Zenbaki horrek hamarren bakarrek hobekuntza ekarri zuen 2014ko lehen hiru hiruhilekoen emaitzaren aldean, baina garrantzitsua da joera aldaketa bat iradokitzen duelako, zeren eta hiru hiruhilekoz jarraian erritmoa moteldu ondoren, Asiako erraldoiak hazkunde bizkorragoa lortu baitzuen hiruhileko horretan. Horretarako, esportazioak suspertu ziren, otsailean eta martxoan jaitsi ondoren, eta maiatzean eta ekainean %7 baino gehiago hazi ziren. Joera hori uztailean areagotu zen eta %14,9ko gorakada jaso zuten. Halaber, gobernuak apirilean higiezinen arloa bizi zen hozteari aurre egiteko abiarazi zituen neurriek azpiegituretan eginiko inbertsioaren gorakada, batez ere trenbideetan eta etxebizitzetan birgaitzean, eta enpresa txiki eta ertainen zergen jaitsiera erraztu zuten, barne eskaria bultzatuz. Azkenik, prezioek kontrolpean jarraitu zuten %2,4aren inguruan.

AEBetan, ekonomia jarduera indartsu berpiztu zen, urte hasierako hilekoetan bizi ziren baldintza meteorologiko zailen eragin kaltegarria gainditu eta gero. Barne eskariak bakarrik bultzatu zuen jarduera, kanpo arloak hazkunderari hamarren bat kendu ziolako. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatuaren sendotasunak eta egoitzez bestelako inbertsioaren bizitasunak, hala ekipamenduetan nola azpiegituretan, kontsumo publikoaren jaitsiera eta egoitzetako inbertsioaren erritmo galera konpentsatu zuten eta %2,6ra igoarazi zuten BPGaren aldakuntza tasa, hau da, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino zazpi hamarren gorago. Lan merkatuak ere bat egin zuen bilakaera on horrekin eta langabezia tasak jarraipena eman zion beheranzko ibilbideari. Hain zuzen ere, langabezia tasa %6,2an kokatu zen uztailean. Datu hori eta ekainean jaso zuen %6,1 dira 2008ko irailetik markatu dituen baliorik txikienak. Prezioak nahiko egonkor eta %2,0aren azpitik ibili ziren.

Beste aldetik, lehen hiruhilekoan gertatu zen gastu aurreratzeak eta apirilean BEZa hiru puntu igo izanak gehikuntza hutsala eman zioten Japoniako BPGari. Kontsumo pribatuak oso behera egin zuen eta kontsumo publikoak murrizteko joerari segida eman zion. Inbertsioak hazkunde garrantzitsua lortu zuen, baina aurreko bederatzi hilekoetako mailara iritsi gabe, beraz ez zuen lortu kontsumoaren jaitsiera konpentsatzea. Datu positiboa kanpo arlotik heldu zitzaion, eta jarduerari hamarrenik ekarri ez zion arren, kendu ere ez zion ezer kendu. Hala eta guztiz ere, maiatzean langabezia tasa gutxienez azken 16 urteko mailarik apalenean kokatu zen (%3,5), nahiz eta ekainean zertxobait goratu zen (%3,7). Azkenik, prezioak hasi ziren BEZaren eragina digeritzen eta maiatzean %3,7ra igo ondoren, uztailean %3,4ra moteldu ziren.

Europar Batasuneko susperraldiak indarra galdu zuen aurtengo bigarren hiruhilekoan eta amaiera eman zion lau hiruhilekoko bizkortze etengabeari. Barne eskariak bakarrik bultzatu zuen jarduera, kanpo saldoak, lehenengo aldiz 2009ko hirugarren hiruhilekotik, hiru hamarren kendu zizkiolako hazkunderari. Zehazkiago, ezegonkortasunak eta ekonomia nagusien hazkundera hauteman ziren erritmo ezberdinek %1,2 haztera eramane zuten kontinente

zaharra, hots, aurreko emaitza baino bi hamarren gutxiago. Izan ere, kanpo saldoaren ekarpen negatiboak erritmo galera eragin zuen Alemanian. Frantziak, berriz, hazkunde hutsala jaso zuen, kontsumo pribatuaren geldotasunak eta inbertsioaren jaitsiera biziak kaltetuta. Europako hazkunde bultzatu zutenak Erresuma Batua eta, neurri txikiagoan, Espainia izan ziren. Lehena %3,1 hazi zen eta Europar Batasuneko ekonomiarik sendoen gisa finkatu zen. Bigarrena, berriz, sei hamarren gehiago hazi zen eta %1,2an kokatu. Kontsumo pribatuaren bizitasuna eta inbertsioaren bultzada garrantzitsua daude Erresuma Batuko hazkunde sendoaren atzean.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasak bere horretan jarraitu zuen uztailean, %10,2an, baina beheranzko joera arina erakusten du. Zehazkiago adierazita, daturik altuena 2013ko apirilean jaso zuenetik, lanik gabeko pertsonen kopurua 1.777.000 lagunetan murriztu da. Alemaniako lan merkatuaren bilakaera nabarmendu behar da, bertako langabezia tasa uztailean %5,0aren azpian kokatu zelako, lehen aldiz serie historikoan. Halaber, Erresuma Batuko lan merkatua ere azpimarratu behar da, langabezia tasa ekainean %6,2ra jaitsi zelako, azken bost urte luzeetan inoiz jaso duen mailarik apalena baita. Azkenik, prezioek beherantz jarraitu zuten. Are gehiago, abuztuan, Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeetatik 8k hazkunde negatiboa izan zuten KPI indizean. Hain zuzen ere, inflazioaren maila apalak eta eremuaren hazkunde geldoak Europako Banku Zentrala (EBZ) interes tasak %0,05era jaistera behartu zuten, inoizko mailarik txikiena delarik.

Espainiako ekonomiaren susperraldia indarra hartzen ari da eta azkenean lan merkatuan nabaritu zen hori. Kontsumo pribatuaren bultzada sendoak, eraikuntzan eginiko inbertsioaren jaitsiera txikiagoak eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren sendotasunak barne eskariak hazkunderari 1,9 puntu ematea eragin zuten. Ekarpen garrantzitsu horrek kanpo arloaren narriadura konpentsatu zuen, esportazioen moteltzearen ondorioz, hainbat hamarren kendu zizkiolako berriro ekonomiaren jarduerari eta azken urteetan lortu zuen kanpoarekiko oreka bukatu dela egiaztatu zuen. Aurrekoaren ondorioz, BPGa %1,2 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino zazpi hamarren gehiago eta azken sei urteko emaitzarik onena izan zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek, lehen arloa izan ezik, hobera egin zuten aurreko hiruhilekoaren aldean. Eraikuntzaren bilakaera azpimarratu behar da, oraindik balio erantsia gutxitu bazuen ere, bost puntutan hobetu zuelako aurtengo lehen hiru hilekoetan jaso zuen balioa.

Langabezia da oraindik Espainiako susperraldiaren galga behinena, nahiz eta aurtengo bigarren hiruhilekoan enpleguak, urte arteko tasan, %0,8ko hazkunde lortu zuen, sei urtez etengabeko murrizketak kateatu ondoren. Tasa hori lehen hiruhilekoko baino puntu bat eta bi hamarren gorago dago eta urtebete batean, gutxi gorabehera, lanaldi osoko 127.000 lanpostu baliokide

sortu zirela adierazten du. Oro har, industriak, eraikuntzak eta zerbitzuek portaera hobea erakutsi zuten, bereziki azkenak, adar guztietan, salbuespena informazioa eta komunikazioak direlarik, enplegua sortu zuelako. Lehen arloak bakarrik okertu zuen bere egoera, baina oso joera gorabeheratsua erakutsi ohi du. Beste aldetik, inflazioak 12 hileko eman ditu %1aren azpitik eta negatiboa izan da azken sei hilabeteetako hirutan. Hain zuzen ere, abuztuan %0,5 egin zuen behera. Tasa hori 2009ko uztailetik jaso duen txikiena da, erregaien eta landugabeko elikagaien merkatzeak baldintzatuta.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2012	2013	2013			2014	
			II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	-3,3	-2,1	-3,1	-1,2	-0,3	1,2	2,0
- Familien gastua	-2,8	-2,1	-3,0	-1,8	0,7	1,7	2,4
- Administrazioaren gastua	-4,8	-2,3	-3,4	0,2	-3,5	-0,2	1,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	-7,0	-5,1	-5,8	-5,3	-1,7	-1,2	1,2
- Aktibo finko materialak	-7,8	-5,5	-6,1	-5,6	-2,5	-1,8	1,1
- Eraikuntzan	-9,7	-9,6	-10,1	-9,8	-8,6	-8,6	-3,4
- Ekipamendurako ondasunetan	-3,9	2,2	1,7	2,2	9,5	10,9	8,6
- Aktibo finko immaterialak	2,9	-0,2	-3,3	-2,9	6,0	3,8	2,7
Nazio eskaria (*)	-4,1	-2,7	-3,6	-2,1	-0,6	0,7	1,9
Esportazioak	2,1	4,9	9,5	3,5	3,7	7,4	1,7
Inportazioak	-5,7	0,4	3,2	0,6	2,7	8,6	3,9
BPG (m.p.)	-1,6	-1,2	-1,6	-1,1	-0,2	0,5	1,2
Nekazaritza eta arrantza	-10,9	1,1	3,9	0,9	4,1	7,4	-0,5
Industria	-0,5	-1,2	-2,1	-0,8	0,3	0,5	1,1
Eraikuntza	-8,6	-7,7	-8,3	-7,8	-7,7	-8,1	-3,1
Zerbitzuak	-0,3	-0,5	-0,9	-0,6	0,5	0,9	1,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	-4,9	-1,2	-1,0	-0,8	-1,2	2,9	3,0
GOGORATZEKOAK							
- Kontsumoko prezioen indizea	2,4	1,4	1,7	1,2	0,1	0,0	0,2
- Enplegua (**)	-4,8	-3,4	-4,0	-3,3	-1,6	-0,4	0,8

Oinarri urtea 2008. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Azkenik, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak argitaratu dituen datuen arabera, Estatuko defizita 26.190 milioietara eta BPGaren %2,52ra iritsi zen ekainean, 2013ko lehen seihilekoan zegoena baino %19,1 gutxiago delarik.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2014ko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak urte arteko hazkunde erritmoa bizkortu zuen %0,9an kokatu arte, hots, aurreko balioa baino puntu erdi bat gorago. Horri esker, beste hiruhileko batez luzatu zuen goranzko joera. Zenbaki hori Euroguneak, oro har, jaso zuen %0,7aren eta Europar Batasunak eskuratu zuen %1,2aren artean dago kokatuta. Hala ere, bi herrialde multzo horiek urte arteko aldakuntza tasak gutxitu zituzten. Hiruhileko arteko tasetan, EAEko ekonomia %0,4 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, eta gehikuntza egonkorren itxura eskaini du, urtea amaitzeko falta diren bi hiruhilekoetako urte arteko emaitzak finkatzeko balioko duena.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013			2014	
			II	III	IV	I	II
BPG erreal	-1,6	-1,2	-1,5	-1,1	-0,3	0,4	0,9
Nekazaritza eta arrantza	8,7	-6,1	-1,6	-1,8	-12,9	-1,3	7,7
Industria eta energia	-3,7	-1,9	-2,7	-1,9	0,0	0,5	0,7
- Manufakturen industria	-3,7	-1,9	-2,5	-1,9	0,1	0,6	0,9
Eraikuntza	-8,2	-5,0	-6,6	-5,2	-1,2	-1,4	-1,4
Zerbitzuak	-0,4	-0,6	-0,7	-0,4	-0,1	0,6	0,9
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,1	-1,4	-1,6	-1,4	-0,6	-0,2	0,4
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,4	-0,3	-0,4	-0,1	0,9	1,9	1,9
- Gainontzeko zerbitzuak	-0,3	-0,2	-0,1	0,0	-0,4	0,4	0,6
Balio erantsi gordina	-1,7	-1,2	-1,6	-1,1	-0,3	0,4	0,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-1,1	-0,7	-0,5	-0,6	-0,6	0,4	1,9

Iturria: Eustat.

Aurreko buletinean adierazi zenez, EAEko ekonomiaren susperraldia bi sektore nagusien hazkunde orekatuari esker lortzen ari da. Izan ere, industriak %0,7 areagotu zuen bere balio erantsia aurreko urteko mailaren aldean, manufakturen jarduerak (%0,9) bizitasun handiagoa erakutsi zutelarik. Industriaren ekoizpenak aurretik zuen iragarria balio erantsiak izan zuen hobekuntza hori, aurtengo bigarren hiruhilekoan %1,2 hazi zelako urte arteko tasan. Are gehiago, tasa hori %1,6ra iritsi zen uztailean. Banaketa produktu motaren arabera egiten bada,

toki nabarmen batean geratzen dira bitarteko ondasunen ekoizpena, aurtengo lehen zazpi hilekoetan %3,0aren inguruko gehikuntza lortuta. Beste muturrean, oraindik nabaria da Fagor enpresaren itxiera, kontsumo iraunkorreko ondasunen tasak oso zenbaki negatibotan (%-15,7 uztailean) jarraitzen duelako.

Industriaren susperraldi leuna baina etengabea sektoreko enpresen iritzietan ere agerian geratu da, Industria Ministerioak osatzen duen industria giroaren indizean hautematen denez. Adierazle horrek hoherantz egin du etengabe urte hasieratik eta irailean -9,3ko balioa jaso zuen, azken hiru urteko daturik onenetakoa baita. Eskari zorroa oraindik nahiko apala da, baina gero eta baikorragoak dira berari buruzko iritzia. Saldu gabe dauden amaitutako produktuen stocka oso txikia da eta sektorearen etorkizunaz eman dituzten erantzunek dagoeneko zeinu positibo gehiago jaso dituzte negatiboak baino. Azkenik, ekoizteko ahalmenaren erabilera maila nahiko altua da eta, horren ondorioz, laster ekipamendurako ondasunetan inbertsio berriak egiteko beharra eduki dezakete.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013		2014		
			IV	I	II	Abuztua	Iraila
Industria							
Industria produkzioaren indizea	-5,9	-3,2	-1,7	-0,3	1,2	---	---
Industria giroaren indizea	-23,0	-21,2	-22,5	-17,5	-13,0	-9,1	-9,3
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	74,2	71,7	71,3	75,2	76,6	---	75,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,5	-4,5	-3,2	-2,4	-2,4	-2,1	-2,1
Eraikuntza							
Koiunturako indizea	-20,1	-16,4	-6,3	-10,3	-3,7	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-40,2	-12,0	15,1	-25,3	28,7	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-20,2	-12,4	-17,6	-26,0	27,4	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-12,0	-12,0	-8,9	-6,1	-3,4	-1,8	-1,7
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	3,1	-9,1	-4,3	-2,0	8,2	10,0	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	2,8	-1,8	-3,1	-10,2	8,8	5,2	---
Hoteletako okupazioa	46,1	44,3	37,8	29,7	47,8	73,8	---
Negozio zifren indizea	-7,1	-3,6	-1,1	4,5	3,3	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-6,3	-5,0	-1,1	-1,0	1,4	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,8	-2,0	-1,0	0,4	1,2	1,5	1,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eraikuntzaren balio erantsiak hobekuntza garrantzitsua izan zuen 2013ko azken zatian, eta harez geroztik urte arteko tasa egonkor dabil %1,5era iristen ez den jaitsiera batean. Etxebizitzaren merkatua suspertzen hasi da eta salmentak indartsu areagotu ziren bigarren hiruhilekoan. Hala ere, eraikitze lanen multzoa oraindik ez da suspertu eta, Eustatek osatzen duen eraikuntzaren koiuntura indizearen arabera, ekoizpena %8,2 murriztu zen. Aitzitik, obra zibilak %5,3ko aldakuntza positiboa lortu zuen. Bilakaera on hori iragarrita zegoen lizitazio ofizialeko datuetan.

Zerbitzuek eman zioten BPGaren gehikuntzari bultzada handiena, beraren balio erantsia %0,9 hazi baitzen urte arteko tasan. Sektorea osatzen duten hiru jarduera taldek tasa positiboak jaso zituzten hiruhileko horretan. Lehen hiruhilekoan gertatu zen bezala, balio erantsiaren gehikuntza bereziki nabarmena izan zen administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldean, %1,9 hazi zelako. Halaber, azpimarratzekoa da merkataritza, ostalaritza eta garraioaren portaera, urte arteko aldakuntza tasa negatiboak atzean utzi zituelako eta %0,4ko hazkundea lortu zuelako. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek gehikuntza %0,6ra bizkortu zuten.

Zerbitzuen balio erantsiak lortu zuen susperraldia sektore horretako koiuntura adierazleetan nabaritu zen. Alde batetik, INEk kalkulatzeko duen negozio zifrak joera baikorra eskaini du aurtengo lehen zazpi hilekoetan, guztietan %2,5etik gorako urte arteko tasak eskuratu dituelako beti. Beste aldetik, Eustatek osatzen duen koiuntura indizeak %1,4ko gorakada ezagutu zuen epealdi horretan, urte batzuetan etengabeko jaitsierak jaso ondoren. Estatistika horren arabera, hiruhileko horretako jarduera dinamikoenak merkataritzari (%3,1) lotutakoak izan ziren, batez ere automobilen salmenta (%5,0) eta handizkako merkataritza (%5,6), baina txikizkako merkataritzak (%0,4) ere eremu positibora eramane bere emaitza. Gainontzeko zerbitzuek geldotasun handiagoa erakutsi zuten (%-1,0), baina gorakada garrantzitsua hauteman da garraioan (%5,4) eta, neurri txikiagoan, administrazio jardueretan (%0,7).


Ia bost urtez jarraian etengabeko jaitsierak bildu ondoren, 2014ko bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomia gai izan zen enplegu garbia sortzeko, urte arteko tasan, baina lortutako zenbakia (%0,1) oso txikia izan zen. Tasa horrek esan nahi du 500 lanpostu baino zertxobait gehiago bakarrik sortu zirela, baina baliagarria da hobekuntza prozesu bati ekiteko. Halaber, lehen aldia da serie historiko osoan enplegu garbia sortzen dela BPGaren hazkundea %1era iritsi gabe.

Berriki aipatu den enpleguaren sorrera ia osorik zerbitzuetan gauzatu zen, nahiz eta lehen arloak ere 100 lanpostu inguru ekarri zizkion ekonomiari. Izan ere, zerbitzuek %0,9ko urte arteko gehikuntza tasa jaso zuen eta dagoeneko hiru hiruhileko kateatu ditu emaitza positiboak biltzen eta gero eta bilakaera hobea erakusten. Guztira, sektore horren enplegua lanaldi osoko


5.500 lanpostu ingurutan igo zen azken hamabi hilekoetan. Beste muturrean, industria eta eraikuntza kokatu ziren, berriro langileak galdu zituztelako, nahiz eta aurreko hiruhilekoetan baino gutxiago. Zehazkiago adierazita, industriak %1,8ko jaitsiera izan zuen urte arteko tasan, hots, aurreko emaitza baino bi hamarren gutxiago. Horrek esan nahi du 3.400 lanpostu desagertu zirela sektore horretan. Eraikuntzak, berriz, %-2,7ko emaitza izan zuen, aurreko datua bi puntu luze hobetuz, beherakada bizkor gutxitzeko prozesu batean. Kasu horretan, 1.600 lanpostu inguru galdu ziren azken urtebetean.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Gizarte Segurantzako afiliazioak eskaini duen informazioak gehiago argitzen du EAEk bizi duen enplegu susperraldiaren prozesuaz. Izan ere, erakunde horren uztailleko, abuztuko eta iraileko erregistroek, hirugarren hiruhilekokoak direlarik, seinalatzen dute prozesua bizkortzen ari dela eta afiliazioa gehien areagotzen ari diren jarduerak adarrak osasun arloak (%2,9), administratiboak (%3,6) eta ostalaritzakoak (%2,7) direla. Tamaina txikiagoko beste adar batzuek ere, hala nola jarduerak artistikoen (%3,7) eta etxeko langileek (%4,1), oso gehikuntza nabarmena lortu dute. Beste muturrean, tamaina handiko zailtasunak daude manufakturen industrian (%-2,2), afiliatu gehien biltzen dituen jarduerak baita, eraikuntzan (%-1,7) eta finantza jardueretan (%-3,4). Emaitza txarrak bildu dituzten arren, hirurek moteldu zituzten langileen galera erritmoa.

Lan faktorearen itxurazko produktibitatea %0,8 hazi zen hiruhileko horretan. Balio hori batez besteko historikoaren (%1,1) zertxobait beherago dago, baina hurbil dago aurreko hiruhilekoetan jasotako emaitzetatik. Ohikoa denez, sektore bakoitzak gaitasun ezberdina erakutsi zuen bere eraginkortasuna hobetzeko. Zentzu horretan, industriak lortu zituen berriro emaitza onenak, produktibitatea %2,6 areagotu baitzuen, aurreko hiruhilekoan bezala. Beste aldetik, eraikuntzak aurreko emaitza ezohikoak leundu zituen eta %1,4ko tasa eskuratu zuen, oraindik oso altua delarik batez besteko historikoarekin (%0,4) alderatuta. Azkenik, zerbitzuek ez zuten inolako hobekuntzarik lortu produktibitatean (%0,0).

Barne eta kanpo eskaria

2014ko bigarren hiruhilekoan, aldaketa garrantzitsua gertatu zen EAEko ekonomiaren hazkunde osaeran eta jardueraren bultzada barne eskariaren aldetik bakarrik iritsi zen. Izan ere, kanpo eskariak ez zion inolako hamarrenik ekarri BPGaren hazkundeari eta, are gehiago, hamarren bat kendu zion gehikuntza horri. Horrek esan nahi du atzeraldietatik irteteko ohiko eredua, bertoko produktuak saltzeko kanpo merkatu berriak bilatzean oinarritzen zena, bertan behera geratu dela denboraldi batez, neurri handi batean Europak epealdi horretan ahultasuna erakutsi duelako. Aitzitik, barne eskaria indartu zen eta %1,0 hazi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bederatzi hamarren gehiago. Horixe izan da, hain zuzen ere, lortu duen baliorik gorena krisia 2008an hasi zenetik.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013			2014	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	-1,6	-1,2	-1,5	-1,1	-0,3	0,4	0,9
Gastua azken kontsumoan	-1,2	-1,0	-1,1	-1,3	-0,6	0,3	1,3
- Familien gastua kontsumoan	-1,3	-1,0	-0,9	-1,3	-0,1	0,2	1,4
- Adminis. gastua kontsumoan	-0,8	-1,3	-2,1	-1,1	-2,3	1,0	0,5
Kapital eraketa gordina	-6,3	-3,2	-4,0	-3,8	-0,3	-1,1	-0,1
- Ekipamendu ondasunak	-5,5	-1,2	-1,1	-0,8	0,1	0,4	1,4
- Gainontzeko inbertsioa	-6,6	-4,1	-5,3	-5,1	-0,5	-1,7	-0,9
Barne eskaria	-2,4	-1,5	-1,8	-1,8	-0,5	0,1	1,0
Esportazioak	-3,3	1,1	2,9	5,5	3,1	3,4	2,3
Inportazioak	-4,2	0,5	2,3	4,0	2,7	2,6	2,4

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren bi osagai nagusiek hobekuntza nabarmena jaso zuten bigarren hiruhilekoan, baina azken kontsumoak eskuratu zuen bultzada nabarmendu behar da, aurreko tasa puntu oso bat handitu zuelako %1,3an kokatu arte, urte arteko tasan. Bizitasun handiago hori familien kontsumoaren portaera hedakorragotik iritsi zen %1,4 bizkortu zelako, hots, aurreko hiruhilekoan baino askoz ere gehiago. Badirudi kontsumo pribatuaren gehikuntza konfiantzaren suspertzeak ekarri duela, testuinguruan finantza egonkortasun handiagoa, enpleguaren suspertze arina, langabezia tasaren jaitsiera, oso apalak diren interes tasak eta ia ezer igotzen ari diren kontsumoko prezioak aurkitzen direlarik. Hala ere, datu on horren atzean koiunturako arrazoiak egon daitezke, datozen hiruhilekoetan berriro gertatuko ez direnak, zeren eta errenta erabilgarriaren bilakaerak ez baitu maila horretako gehikuntzarik azaltzen.

Kapital eraketa gordinak ere nabarmen hobetu zuen bere aldakuntza tasa, urte hasieran jasotako %-1,1etik bigarren hiruhilekoan eskuratutako %-0,1era. Hala ere, oraindik ez ditu atzean utzi zeinu negatiboak. Aurreko bi hiruhilekoetan gertatu zen bezala, ekipamendurako ondasunen atalak eta gainontzeko inbertsioak portaera ezberdina erakutsi zuten. Zehazkiago adierazita, ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordina %1,4 areagotu zen, aurreko balioa baino puntu bat gehiago delarik. Aitzitik, gainontzeko inbertsioa oraindik aldakuntza tasa negatibotan dago (%-0,9), eraikuntzaren egoerak baldintzatuta. Hala ere, jaitsiera ez zen aurreko hiruhilekoko bezain handia izan.

Inbertsioari lotuta dauden koiunturako adierazleek kapital eraketa gordinaren bultzada hasiberriaren ideia sendotzen dute, bereziki ekipamendurako ondasunei dagokienez. Hain zuzen ere, ondasun mota horren inportazioa %2,5 hazi zen aurtengo lehen sei hilekoan, neurri handi batean garraio materialaren bultzadari esker. Metal arrunten eta beren manufakturen inportazioak ere gorakada azpimarragarria (%3,8) lortu zuen epealdi berean. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen EAEko ekoizpenak irudi laua eskaini du aurtengo lehen zazpi hilekoetan, aurreko bi urteetan pilatu zituen jaitsieren ondoren. Azkenik, zamaketa ibilgailuen matrikulazioak goranzko joera sendoari eutsi zion, nahiz eta nolabaiteko agortzea hauteman den azken bi hilekoetan.

Lehenago ere adierazi denez, bigarren hiruhilekoko ezaugarrietako bat EAEko ekonomiaren hazkunde ereduak ezagutu duen aldaketa da, kanpo merkatuetan oinarritu beharrean barne merkatuari garrantzia handiagoa eman diolako. Horren ondorioz, kanpo saldoaren ekarpena hazkundeari, azken bost urtean beti positiboa izan baita, negatiboa izatera pasatu da. Zeinu aldaketaren oinarrian, esportazioen moteltzea, hala termino nominaletan nola errealetan, eta bilakaera egonkorragoa erakusten ari diren inportazioak daude. Zehazkiago adierazita, esportazioak, termino errealetan, %3,4 haztetik %2,3 gehitzera igaro ziren, eta inportazioei dagozkien datuak honako hauek dira: %2,6ko tasa lehen hiruhilekoan eta %2,4koa, berriz, bigarrean.

Atzerriarekin egin diren ondasunen salerosketaz Eustatek, Aduanetako Sailaren datuetan oinarrituta, argitaratzen duen informazioak adierazten du aurtengo lehen sei hilekoan EAEko produktuen salmentak bilakaera ona izan zuela. Aste Santua hileko ezberdinetan ospatu izanak hiruhilekoen arteko alderaketa distortsionatzen du. Izan ere, urte hasiera bikainari (%12,4) negatibo samarra zen beste datu bat (%-0,6) jarraitu zion. Horregatik, komenigarria da sei hileko osoaren emaitza (%5,4) kontuan hartzea eta nazioarteko merkataritzaren gehikuntzarekin (%2,0) alderatzea, EAEko produktuen salmenta atzerrian aurtengo lehen erdian ondo joan zela ondorioztatzeko. Esportazioen bultzada, neurri handi batean, erregai mineralen salmentan oinarritu da, epealdi horretan %50 baino gehiago hazi zirelako, gainontzeko produktuek bilakaera apalagoa (%0,3) izan zuten bitartean.

Produktu motaren arabera, eta lehenago aipatu diren erregai mineralak albo batera utzita, metal arruntek eta beren manufakturrek lortu zuten bultzada (%5,4) azpimarratu behar da. Hain zuzen ere, atal horrek oso pisu handia dauka EAEko esportazioen egituran. Pisu gutxiago duten beste produktu batzuek ere salmentak nabarmen areagotu zituzten, hala nola paperak eta produktu kimikoak. Lehenengoak %4,6 areagotu zituen esportazioak eta bigarrenak, berriz, %5,7. Hala ere, ahultasun garbiak nabaritzen dira beste atal garrantzitsu batzuen bilakaeran, esate baterako ekipamendurako ondasunei lotutakoetan, beren salmentek behera egin zutelako aurtengo lehen erdian. Hain zuzen ere, makinaren eta tresnen salmentak jaitsiera arina (%-0,7) ezagutu zuen lehen sei hilekoan, hiru urte baino gehiago etengabeko hazkundera pilatu eta gero. Halaber, garraio materialaren esportazioek %3,3ko beherakada jaso zuten epealdi horretan, baina kasu horretan gorabeherak oso handiak izaten dira.

Esportazioen banaketa geografikoak seinalatzen du salmenten gorakada herrialde garatuetan zein garapen bidean daudenetan lortu zela. Izan ere, lehen kasuan, ELGE osatzen duten herrialdeetara esportatu zena %4,0 handitu zen sei hilekoan, lehen hiruhilekoan hazkunde garrantzitsua (%10,9) eta bigarrenetan jaitsiera txikia (%-1,8) jaso zirelako. Beste aldetik, erakunde horretatik kanpo egin ziren salmentak bi hiruhilekoetan goratu ziren, baina bereziki lehenengoan, eta sei hileko osorako emaitza meritu handiko %10,2 batera iritsi zen. Berriz ere, azpimarratu behar da salmenten igoera hori ia osorik justifikatzen duen produktua, bai eremu batean bai bestean, erregai mineralak direla. Izan ere, ELGEren esparruan, produktu mineralen esportazioak %39,4 areagotu ziren, gainontzeko ekoizkinen salmenta %0,6 bakarrik hazi zen bitartean. Orobat, garapen bidean dauden herrialdeetan, zenbakiak honakoak dira: %154,8ko hazkundera erregai mineralentzat eta %0,0, berriz, gainontzeko produktuentzat. Horrek iradokitzen du nolabaiteko espezializazioa gertatzen ari dela EAEko ekoizpen egituran, produktu horien alde. Gogoratu behar da 2002an erregai mineralak atzerrian esportatutakoaren %4 besterik ez zirela, baina 2014ko lehen erdian dagoeneko guztizkoaren %13ra iritsi da portzentaje hori.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2012	2013	2013		2014		
			III	IV	I	II	II
TOTAL	-3,7	-0,3	2,7	-8,3	12,4	-0,6	5.575.870
OCDE	-5,5	1,2	2,0	-2,3	10,9	-1,8	4.297.249
Unión Europea	-9,1	-0,8	4,4	-0,8	14,0	3,6	3.444.665
Francia	-15,9	-1,5	0,1	-10,9	-2,6	-7,8	870.289
Alemania	-5,0	1,8	8,2	4,6	12,0	-1,6	788.058
Reino Unido	12,0	-8,7	0,1	-9,8	15,3	11,1	361.216
Italia	-20,6	-2,5	-1,2	-5,8	-9,2	4,9	264.554
Estados Unidos	0,7	8,7	0,6	-25,4	9,4	19,3	467.444
No OCDE	2,9	-5,0	5,2	-24,4	17,6	3,8	1.278.621

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Herrialde garatuen multzoan, bai Europar Batasunera bidalitako esportazioek bai AEBetara bideratutakoek bizitasun garrantzitsua erakutsi zuten 2014ko lehen erdian, iragan diren bi hiruhilekoetan gehikuntza tasa positiboak jaso zirelako. Sei hilekoan, Europar Batasunean eginiko salmentak %8,5 hazi ziren eta iparramerikar herrialdeari zuzendutakoak, berriz, %14,8. Azpimarratu behar dira Erresuma Batura (%13,0), hori baita gaur egun bizitasun handiena erakusten duten Europako herrialdeetako bat, eta Alemaniara (%4,7) bidalitako esportazioak. Aitzitik, Frantziak eta Italiak portaera makalagoa erakutsi zuten eta EAEko produktu gutxiago erosi zuten. Nabarmendu behar da Europako herrialdeetan energiakoak ez diren produktuen bilakaera oso garrantzitsua dela, eta horiek salmenta areagotu zutela epealdi horretan. Hain zuzen ere, energiaren bestelako ondasunen salmenta %12,4 hazi zen Erresuma Batua eta %4,7, berriz, Alemanian. AEBetako kasuan, erregai mineralen esportazioa %20,5 handitu zen eta energiaren bestelakoena, berriz, %9,6 esanguratsu bat.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Errusian saldutakoaren beherakada bizia nabarmendu da, neurri batean auzoko Ukrainian sortu diren tentsioek baldintzatuta. Izan ere, merkatu horretara bideratutako salmentak %10,5 jaitsi ziren, bereziki bigarren hiruhilekoan. Orobat, askoz gutxiago saldu zen Brasilen (%-6,1). Aitzitik, Txinan saldu ziren EAEko produktuek gorakada bizia izan zuten, aurtengo lehen erdian %41,0ra iritsi baitzen. Munduko gainontzeko eremuan, salmenten gehikuntza tasa %7,6ra heldu zen, bereziki produktu mineralen hazkunde sendoaren ondorioz, gainontzeko esportazioek, sei hilekoan, %4,8ko beherakada jaso zuten bitartean.

Inportazioei dagokienez, aurtengo lehen bi hiruhilekoen bilakaera oso antzekoa izan da eta inportazioak 2014ko lehen hiruhilekoan %10,8 hazi baziren, bigarreanean jasotako hazkunde tasa %10,2 izan zen, seiuhileko osorako batez bestekoa %10,5ean geratu zelarik. Hala eta guztiz ere, portaera oso ezberdina izan zen herrialde multzo batzuetan eta besteetan. Izan ere, lehen hiruhilekoan, inportazioen gehikuntza herrialde garatuetan gauzatu zen (%31,9), azalerraten ari diren herrialdeetan egin ziren erosketek bat-bateko jaitsiera bizia (%-17,8) izan zuten bitartean. Aitzitik, bigarren hiruhilekoan, azken hauek gorakada handia (%29,8) lortu zuten EAEn eginiko salmentetan, baina herrialde garatuetan eginiko erosketak zertxobait (%-1,2) murriztu ziren. Inportatu ziren produktu motek azaltzen dute jatorri bakoitzean gertatu zen ezberdintasuna. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoan energiaz bestelako ekoizkinek portaera biziagoa izan zuten, baina bigarreanean erregaiak jaso zituzten tasa altuenak.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2012	2013	2013		2014		
			III	IV	I	II	II
TOTAL	-9,4	1,8	-4,9	6,5	10,8	10,2	4.246.298
OCDE	2,6	1,0	-2,8	23,0	31,9	-1,2	2.412.565
Unión Europea	-6,8	-0,8	-10,9	18,7	38,4	13,5	2.085.704
Francia	-9,4	0,9	1,9	9,0	4,6	-3,8	393.999
Alemania	-2,1	-2,3	-13,0	5,3	8,3	-2,9	496.903
Reino Unido	-28,8	-2,6	-30,6	14,1	3,6	59,9	245.154
Italia	-0,8	-11,6	-9,8	-12,3	0,5	10,8	225.945
Estados Unidos	-13,0	40,6	62,7	318,7	96,1	-51,4	66.754
No OCDE	-24,9	3,3	-8,2	-19,0	-17,8	29,8	1.833.733

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administraziooko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Deigarria da EAEko enpresek erosketak Europar Batasuneko herrialdeetan pilotzea, eremu horrek inportazio guztien ia erdia bereganatzen duelako. Euroaren sendotasunak beste merkatu batzuetara jotzeko aukera ematen duen arren, Europan eginiko erosketak %25,4 handitu ziren lehen seiuhilekoan, gainontzeko eremuetan baino gehiago. Produktuen hornitzaile gisa Erresuma Batua nabarmendu zen, seiuhilekoan %35,2ko gehikuntza bat lortuta, oso bereziki bigarren hiruhilekoan lortutako emaitzari esker. Inportatzeko joera bizi horren atzean, berriro ere, produktu mineralak daude, herrialde horretan egin ziren erosketak guztien herena bildu zutelako, 2013an %3 baino ez zirenean. AEBekin egin diren merkataritza harremanak ere erregai mineralen inguruan finkatu dira. Zehatz-mehatz adierazita, herrialde horretatik ekarri ziren

inportazioen guztizkoa %3,1 hazi zen seihilekoan, baina erregaien ataleko erosketak %30,4 handitu ziren eta dagoeneko inportazio guztien %45 dira.

Atzerrian egin ziren ondasunen erosketek eta salmentek EAEn aldeko merkataritza saldo garrantzitsu bat utzi zuten, lehen hiruhilekoan 1.055 milioi eurora iritsi zena eta bigarrenean 1.330 milioi eurora. Halaber, erosketetan eta salmentetan energia alorreko ekoizkinak albo batean uzten badira, saldoa are handiagoa da eta bi hiruhilekoetan 2.000 milioi euroko langa gainditu zuen. Aldeko saldo horren zati bat energiako produktuen mendekotasunaren ondorioz galtzen da.

Prezioak

2014ko bigarren hiruhilekoan, prezioen bilakaera neurtzen duten adierazleek balio apalak jaso zituzten berriro. Esate baterako, BPGaren deflatoreak atzean utzi zituen lehen hiruhilekoko tasa negatiboak (%-0,1) eta balio positiboak berreskuratu zituen, nahiz eta oso txikiak ziren (%0,2). Goranzko joera arin horren oinarrian, kontsumo pribatuaren deflatoreak izan zuen portaera dago, aurreko hiruhilekoko emaitzaren aldean gora egin zuen bakarra izan zelako, %0,1etik %0,5era igarota. Aitzitik, gainontzeko deflatoreak berriro moteldu ziren. Beraien artean, kontsumo publikoaren deflatoreak izan zuen doikuntza nabarmendu zen, iazko amaieran gehikuntza handia ezagutu ondoren, funtzionarioei aparteko ordainketa eman zitzaielako.

KPIari dagokionez, bigarren hiruhilekoan lehenengoaren antzeko tasak (%0,5 eta %0,4, hurrenez hurren) jaso bazituen ere, ondorengo hilekoetan beherantz egin zuen nabarmen urte arteko tasa, abuztuan, argitaratu den azken hilekoa baita, %0,3ko jaitsiera jaso arte. Datu hori 2009ko uztailean jaso zen %-0,6aren ondoren erregistratu den mailarik apalena da. Oraingo jaitsiera oso lotuta dago Brent motako petrolio gordinaren salneurriari, uda hasieran upelaren prezioa 111 dolarretara iritsi bazen ere, geroztik merkatuz joan da eta 100 dolarren azpitik saltzera heldu da.

Zehazkiago adierazita, bigarren hiruhilekoko hasieran gorakada txikia eta iragankorra, Aste Santuak 2013an eta 2014an hileko ezberdinetan ospatu izanak eraginda, jaso ondoren, inflazio tasak oso maila apalak izan zituen, elikagai freskoei eta energiako produktuei lotutako koiunturako faktoreek lagunduta. Halaber, uztailean bertan behera geratu zen urtebete lehenago martxan jarri zen botiken koordainketak ekarri zuen goranzko eragina eta urte arteko tasak beheranzko maila bat jaitsi ziren, nahiko egonkorra zen %0,5etik lehenago aipatu diren aldakuntza tasa negatiboetara igaroz.

Horiek horrela izanda, prezioek beherantz erakutsi zuten joeraren ondorioz, EAEko inflazioaren diferentzia Eurogunearekiko, berez aldekoa zena, are gehiago zabaldu zen, abuztuan zazpi hamarrenetara iritsi arte. Tarte hori 2012ko martxotik inoiz eduki den handiena da, baina garai hartan prezioak oraingoan baino gehiago hazten ziren. Estatuarekiko inflazio diferentziala, berriz, murrizteko joera erakutsi zuen, batez ere koordainketaren goranzko eragina desagertu zenetik, baina oraindik bi hamarrenetan dago, kasu honetan Estatuaren alde, beraren urte arteko tasa abuztuan %-0,5 izan zelako.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2012	2013	2014			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazio osoa (%100)	2,3	1,6	0,4	0,5	-0,3	-0,3
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,5	1,6	0,5	0,5	0,1	0,1
- Elikagai landuak (%14,1)	3,3	3,1	0,6	-0,1	-0,4	0,0
- Industria ondasunak (%26,2)	0,3	0,5	0,4	0,3	-0,3	-0,1
- Zerbitzuak (%41,5)	1,7	1,8	0,5	0,7	0,5	0,2
Hondar inflazioa (%18,2)	6,1	1,4	0,0	0,8	-2,1	-0,4
- Landu gabe elikagaiak (%7,0)	2,7	3,7	1,2	-2,6	-5,2	-0,4
- Energia (%11,2)	8,3	0,0	-0,8	3,1	-0,1	0,0

Iturria: INE.

Azpiko inflazioak ere, kontsumoko prezioen gune egonkorrena baita, inflazio apaleko ingurune batean jarraitu zuen (%0,1), berau osatzen duten hiru osagai nagusien bilakaerari esker. Hain zuzen ere, landutako elikagaiak moteltzeko joera garbiari segida eman zioten, olioaren prezioaren bilakaerak baldintzatuta. Halaber, energiaz bestelako industria ondasunek beheranzko erritmoa areagotu zuten. Azkenik, zerbitzuek, aurreko taldeek ez bezala, ez zuten tasa negatiborik jaso, baina beraren aldakuntza tasa inoizko maila apalenetan dago eta moteltzeko tonua luzatzen jarraitu zuen.

KPIaren osagai egonkorrenen bilakaerak moteltzeko joera garrantzitsua erakusten duten arren, gorabehera handienak izaten dutenek eragin handiagoa izan zuten, hain zuzen ere, inflazioaren bilakaeran azken hilekoetan. Izan ere, hala landugabeko elikagaien prezioak nola energiako ekoizkinen salneurriak nabarmen jaitsi ziren. Lehenengoen kasuan, moteltze hori oinarri efektu baten ondorioa izan zen, zeren eta hileko horietan desagertu ziren 2013ko udaberrian eta udan

atal horiek ezagutu zituzten hazkunde biziak. Energiakoek, ordea, petrolioaren prezioak izan zuen bilakaeraren ondorioz merkatu ziren.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013		2014		Abuztua
			III	IV	I	II	
Indize orokorra	2,3	1,6	1,6	0,5	0,4	0,5	-0,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,9	3,7	1,1	0,6	-1,3	-2,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	5,8	6,0	5,8	5,3	2,1	1,7	0,1
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,1	-0,1	0,5	0,2	0,3	-0,2
Etxebizitza	5,7	1,1	-0,6	-0,1	1,7	3,0	1,4
Etxeko hornidura	1,1	2,0	1,9	0,1	-0,4	-0,8	-0,1
Medikuntza	-0,7	7,5	11,2	9,0	8,2	8,2	0,7
Garraioa	4,3	0,3	-0,1	-0,1	-0,9	1,1	0,1
Komunikazioak	-3,4	-4,3	-4,2	-6,8	-6,8	-5,8	-5,9
Aisia eta kultura	1,0	1,6	1,7	-0,2	-1,0	-0,7	-2,1
Irakaskuntza	2,8	3,0	3,2	2,5	2,8	2,7	2,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,0	1,1	1,4	0,7	0,6	0,9	0,8
Besteak	2,4	2,1	2,1	0,5	0,7	1,2	1,3

Iturria: INE.

KPI indizea osatzen duten talde ia guztiek lagundu zuten inflazioa dagoen maila apaletara eramateko egitekoan. Nabarmentzekoa da hamabi taldeetatik bostek prezioen urte arteko jaitsierak jasotzen dituztela dagoeneko. Beraien artean, berriro ere, komunikazioak (%-5,9) eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%-2,3) gailentzen dira, azken hau fruta freskoen salneurri apalagoek lagunduta. Era berean, tasa negatiboak jaso ez zituzten arren, azpimarratu behar dira edari alkoholdunen eta tabakoaren bilakaera (%0,1), tabakoaren salneurria egonkortu eta gero, garraioarena (%0,1), erregaien merkatzearen ondorioz, eta, batez ere, medikuntzarena (%0,7), lehenago aipatu denez, botiken koordainketak eragin zuen goranzko efektua desagertu zelako.

Industriako prezioei dagokienez, adierazi behar da IPRIk urte arteko tasa negatiboak berreskuratu zituela udako hilekoetan. Hain zuzen ere, abuztuan, ezagutzen diren datuak hileko horretan amaitzen baitira, urte arteko tasa %-0,4an kokatu zen. Datu hori eta aurreko hilekoko oso antzekoak dira eta azken hamazortzi hilekoetan bitan bakarrik jaso dira prezioen

igoerak. Indizea osatzen duten ondasun talde ia guztiak balio negatibotan daude kokatuta, salbuespen bakarra bitarteko ondasunak direlarik, baina horiek %0,2 baino ez ziren garestitu, denbora luze batean salneurriak merkatu ondoren. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da energiako produktuen beherakada (%-1,9), nahiz eta talde horren bilakaerak gorabehera handiak erakutsi dituen azken hilekoetan.

Azkenik, ekaina arte erregistratu ziren hitzarmen kolektiboek %0,8an utzi dute soldaten igoera indarrean dauden hitzarmenetan, eta %0,6an, berriz, aurten sinatu direnena. Bi zenbaki horiek eta urte hasieran jaso zirenak (%0,8 eta %0,5, hurrenez hurren) oso antzekoak dira. Inflazioaren aurreikuspen apalek, oraingo KPI indizea tasa negatibotan baitago, lagundu zuten soldaten igoerak txikiak izaten.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,9	3,6	2,7	1,3	0,8
- Urtean zehar sinatutakoak	1,7	3,4	2,0	1,1	0,6
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,7	3,8	2,7	1,3	0,8
- Enpresako hitzarmenak	2,4	3,1	2,6	1,2	0,7

(*) 2014ko ekaina arte erregistratutako hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

Ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakundeek kalkulatu dute munduko ekonomiaren bizitasuna lehenago aurreikusi zutena baino zertxobait ahulagoa izango dela. Zehazkiago adierazita, Consensus Forecasten ustez, munduko ekonomia %2,7 haziko da 2014an eta %3,2, berriz, 2015ean. ELGEk ere, azken txostenean, eszenategi berria ezagutarazi du, bi urteetarako hazkunde aurreikuspenak beherantz zuzenduta dituenak. Munduko ekonomiaren testuinguruan, zalantza handiena Eurogunean dago fokatuta, eta deflazioan sartzeko hautematen den arriskuan. Munduko ekonomiaren susperraldia oztopatu dezakeen beste elementu bat herrialde batzuetan sortu diren tentsio politikoek okerragotzea da, hala nola Siriakoak, Irakekoak eta Ukrainiakoak. Faktore horiek guztiek azken hiruhilekoetan hasi zen goranzko joera mehatxatu dezakete.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2013	2014	2015	2013	2014	2015
Munduko ekonomia	2,6	2,7	3,2	2,8	3,2	3,2
AEB	2,2	2,1	3,1	1,5	1,9	2,0
Kanada	2,0	2,3	2,5	1,0	2,0	1,9
Japonia	1,5	1,2	1,3	0,4	2,8	1,8
Eurogunea	-0,4	0,9	1,4	1,3	0,6	1,1
Europar Batasuna	0,1	1,4	1,8	1,4	0,8	1,3
Alemania	0,4	1,7	1,8	1,5	1,1	1,7
Espainia	-1,2	1,2	1,8	1,4	0,1	0,7
Frantzia	0,4	0,5	1,1	0,9	0,7	1,0
Herbehereak	-0,7	0,5	1,4	2,5	0,8	1,3
Italia	-1,8	-0,1	0,9	1,2	0,3	0,7
Erresuma Batua	1,7	3,1	2,6	2,6	1,7	1,9
Asia eta Ozeano Barea	4,9	4,8	4,8	2,7	3,0	3,0
Ekialdeko Europa	2,1	1,5	2,4	5,1	5,7	5,1
Amerika Latinoa	2,7	1,4	2,4	8,7	12,1	10,9

Iturria: Consensus Forecast (2014ko iraila).

Estatubatuar ekonomiarentzat aurkeztu diren hazkunde aurreikuspenek goranzko norabidea seinatzen dute datozen urteetan. Consensus Forecasten arabera, AEBetako ekonomia %2,1 haziko da 2014an eta %3,1era iritsiko da 2015ean. Kontsumo pribatua eta inbertsioa izango dira barne eskariaren osagai dinamikoenak eta erritmo garrantzitsu batean egingo dute aurrera. Lan merkatuaren eta eraikuntzaren hobekuntzak goranzko bilakaera hori ahalbidetuko du. Moneta pizgarriak urratsez urrats kentzen jarraituko dira eta zerga politika murriztailea izango da oraindik, baina aurreko urteetako mailara iritsi gabe. Kanpo eskariak hazkundera mugatu dezakeela aurreikusten da, AEBetako merkataritza bazkide nagusiek erakutsi duten ahultasunaren ondorioz.

Euroguneak aurre egin beharko dio ziurgabetasunezko eszenategi bati, ez baitago garbi datozen hiruhilekoetan ekonomia nondik nora joango den. Consensus Forecastek uste du Europako moneta batasuneko ekonomia %0,9 haziko dela 2014an eta %1,4ra iritsiko dela 2015ean. Susperraldia ahula eta geldoa izango dela aurreikusten da. Inflazio apaleko egoerak kezka betetzen du etorkizuna. Deflazioan sartzeko arriskua eta horrek berarekin ekarriko lukeen gelditasuna Europako moneta agintarien ikusmiran egongo dira. Hauek neurri garrantzitsuak

hartu beharko dituzte moneta, zerga eta banka alorretan, arriskuak kentzeko. Frantziak eta Italiak Euroguneko batez besteko hazkundera lastatuko dute. Beste aldetik, Alemaniak Ukrainiako gatazkaren ondorioak pairatzen jarraitu dezake.

Espainiarentzat, erakunde gehienek gorantz zuzendu dute 2014. urterako batez besteko hazkunderaren aurreikuspena eta %1,3aren inguruan kokatu. Datorren urterako, oraindik oso iritzi ezberdinak daude eta aldakuntza tasak ELGEk iragarri zituen %1,6aren eta BBVAren %2,3aren artean kokatzen dira. Datu horien atzean, aldaketa esanguratsua dago hazkunderaren osieran, non nazio eskariaren ekarpenak indarra hartzen baitu kanpo eskariaren ekarpenaren aldean. Oinarrizko eszenategian, gorantz berrikusi dira enpleguaren bilakaeraren aurreikuspenak 2014an eta 2015ean. Halaber, langabezia tasak behera egingo duela espero da. Hain zuzen ere, Funcasen aditu taldeak %24,6an eta %23,2an kokatzen du langabezia tasa 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2014ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014		2014	2015				2015
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,6	1,8	1,3	1,8	1,8	1,9	2,3	2,0
Kontsumo pribatua	2,1	1,8	2,0	1,6	1,4	1,6	2,0	1,7
Kontsumo publikoa	-0,7	-0,5	-0,1	-0,5	-0,5	-0,3	0,4	-0,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,1	2,4	1,1	2,4	2,8	3,7	4,1	3,2
- Inbertsioa ekipamenduan	7,1	5,2	7,9	3,0	2,9	4,2	4,1	3,6
- Inbertsioa landutako aktibotan	1,1	-0,7	1,6	-2,3	-0,1	2,9	4,5	1,3
- Inbertsioa eraikuntzan	-1,1	0,6	-3,2	1,7	2,5	3,1	3,5	2,7
Barne eskaria	1,6	1,5	1,4	1,4	1,3	1,5	2,0	1,6
Esportazioak	3,0	4,4	4,1	5,0	6,0	6,5	6,8	6,1
Inportazioak	3,3	3,6	4,8	3,9	4,8	5,6	6,4	5,2

Iturria: CEPREDE

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak ekonomiaren hazkundera aurreikuspenak berri- berri ditu 2014 eta 2015 urteetarako. Bi urte horietan, bere horretan utzi dira aurreko hiruhilekoan argitaratu ziren gehikuntza tasak. Izan ere, hazkundera %1,0 izango da 2014an eta %1,7, berriz, 2015ean. Datu horiek baieztatzen dute susperraldiaren joera finkatuko dela aurreikusi den epealdi osoan zehar. Azpimarratu beharreko ezaugarri gisa, nabarmentzen da barne

eskariak indarra hartuko duela hiruhilekoz hiruhileko eta EAEko ekonomiaren bultzagile nagusia izango dela.

Kontsumo pribatua eta inbertsioa izango dira barne eskariaren osagai bizienak. Kontsumoko prezioen maila apalak, interes tasa txikiek eta ekonomia eragileen konfiantza handiagoak familien gastua kontsumoan areagotuko dute. Kontsumitzaileen igurikimen hobekuntza, bereziki, lan merkatuaren aldagaien hobekuntzan oinarrituko dira, batez ere 2015. urtean zehar. Kapital eraketa gordinak indarra hartuko du higiezinaren beherakada leunduko delako eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak bilakaera positiboa erakutsiko duelako. Orobat, banku sektoreak finantzaziorako baldintza hobekuntzak emateak ere agregatu horren garapena lagunduko du.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2014ko urria)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014		2014	2015				2015
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,3	1,5	1,0	1,6	1,7	1,7	1,9	1,7
Azken kontsumoa	0,7	0,7	0,8	0,9	1,0	1,2	1,3	1,1
Kontsumo pribatua	1,1	1,1	1,0	1,3	1,4	1,6	1,7	1,5
Kontsumo publikoa	-1,0	-0,7	0,0	-0,2	-0,1	0,1	0,4	0,1
Kapital eraketa gordina	1,2	2,1	0,5	2,8	3,5	4,0	4,3	3,6
Barne eskariaren ekarpena	0,9	1,1	0,8	1,4	1,5	1,7	1,9	1,6
Kanpo saldoaren ekarpena	0,4	0,4	0,3	0,2	0,2	0,0	0,0	0,1
Lehen arloa	7,3	5,5	4,8	2,2	0,0	0,5	0,1	0,7
Industria eta energia	1,3	2,1	1,2	2,6	2,7	2,9	3,1	2,8
Eraikuntza	-1,0	-0,7	-1,1	-0,1	0,1	0,3	0,8	0,3
Zerbitzuak	1,3	1,5	1,1	1,5	1,6	1,6	1,7	1,6
Balio erantsi gordina	1,3	1,6	1,0	1,6	1,7	1,8	1,9	1,7
Ekoizkinen gaineko zergak	1,2	1,0	1,1	1,2	1,4	1,4	1,6	1,4
BPGaren deflatorea	0,0	0,1	0,1	0,6	0,9	1,0	1,2	1,0
Enplegua	0,4	0,5	0,1	0,6	0,6	0,7	0,7	0,7
Langabezia tasa	15,2	15,4	15,3	15,2	14,9	14,7	14,7	14,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kanpo eskariak ekarpen txikiagoa egingo dio BPGaren hazkunderari, baina oraindik positiboa izango da. Lehiakortasuneko irabaziek eta EAEko kuota merkataritzan igo izanak EAEko produktuen salmenta kanpoko merkatuetan areagotuko dute. Hala ere, barne eskariaren suspertzeak EAEko inportazioak igoaraziko ditu.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpen adar guztiek indarra hartuko dute eszenategi makroekonomiko honetan kontuan hartu den epealdian zehar. Industria astiro suspertuko da eta kanpoko ingurunearen bilakaerak eta barne eskariarenak baldintzatuko dute. Goranzko norabidea zerbitzuetan ere hautemango da. Eraikuntzari dagokionez, hazkunde tasa positiboak aurreikusten dira kontuan hartu den epealdiaren azken hilekoetarako. Higiezinaren jardueren bizitasuna etxebizitzaren egokitzapenean eta eskariaren hazkunderan oinarrituko da, hipoteken interes tasak apalei esker. Lan merkatuari dagokionez, 2014an enpleguaren batez besteko aldakuntza tasa %0,0 izango dela aurreikusten da, bana tasa hori %0,7ra arte goratuko da 2015ean.